



## XVIII. SANTIAGOKO KROS HERRIKOIA

### ARAUDIA

#### 1. ARTIKULUA

Santiagoko auzokideen elkarte, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldearen laguntzarekin, **XVIII. Santiagoko Kros Herrikoa** antolatuko du 2016ko Uztailaren 25ko goizarako.

Bi lasterketa mota egongo da: Haurrentzako lasterketak (10:00etan) eta Santiago auzoko festetako lasterketa herrikoa (10:30etan) auzokideen elkartearen egoitza parean hasiera eta helmuga izanda.

#### 2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez. Lasterketan parte hartzeko gutxiengo adina 14 urtekoa izango da.

Parte hartzaile kopurua gehienez **250ekoa** izango da.

Lasterketari bakoitzak bere erantzunkizunpean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

#### 3. ARTIKULUA – LASTERKETEN LUZEERAK ETA KATEGORIAK

Irteera bakarra egongo da baina kategori ezberdinen arabera lasterketen luzeerak ezberdinak izango dira. Kategoriak eta lasterketen luzeerak hurrengoak dira:

- 16 urte beherakoak: itzuli 1, 2750 metro
- Emakume Senior eta Helduak<sup>1</sup>: 2 itzuli, 5500 metro
- Gizon Helduak<sup>2</sup>: 2 itzuli, 5500 metro
- Gizon Seniorrak: 3 vueltas, 8250 metro

Helduak, nahi izanez gero, seniorren lasterketaren distantzian parte hartu dezakete izen ematerakoan adieraziz. Kasu hontan, helduen kategoriaren sariak irabazteko aukerarik ez dute izango baina bai senior kategorioaren sariak.

---

<sup>1</sup> Emakume helduen kategoria 35 urtetik aurrerakoa.

<sup>2</sup> Gizonen helduen kategoria 35 urtetik aurrerakoa.

#### **4. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK**

Inskripzioak Ekainaren 20an irekiko dira [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) –en. Izen ematearen prezioa aldatu egiten da inskripzioa egiten den dataren arabera, alegia:

- 6€, Internet bidez egindako izen ematea 2016/07/24 baino lehen eginez (14 orduak baino lehen).
- 8€, Egun bereko izen ematea, 2016/07/25an (Irteera gunean, Santiagoko auzokideen elkarte parean).

#### **5. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA**

**Dorsal guztiak zuzenean lasterketa egunean jasoko dira, irteera gunean goizeko 9:00etatik 10:20rak arte.**

**UZTAILAK 25, ASTELEHENA: 9:00 – 10:20**

NAN txartela aurkeztea derrigorrezkoa izango da dortsala eta txipa jasotzeko.

#### **6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK**

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiak derrigorrez ibilbide osoa bete beharko dute. Atleta guztiak irteerako epaileen aginduetara egon beharko dira proba eguneko 10:30ak baino 10 minutu lehenago, ordu horretan irtengo baita.

Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
- Beste lasterkari batena den dortsala eta/edo txipa daramatenak.
- Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
- Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.
- Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

#### **7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA**

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

## **8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA**

Helmugan mediku laguntza egongo da.

Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

## **9. ARTIKULUA.- SARIAK.**

- 16 urte beherako mutillezko lehen sailkatua Garaikurra
- 16 urte beherako emakumezko lehen sailkatua Garaikurra
- Emakume helduen kategoriatako 3 lehen sailkatuentzat Garaikurra
- Gizon helduen kategoriatako 3 lehen sailkatuentzat Garaikurra
- Emakume absolutuen kategoriatako 3 lehen sailkatuentzat Garaikurra
- Gizon absolutuen kategoriatako 3 lehen sailkatuentzat Garaikurra

Opari ugari zozketatuko dira frogaren partaide guztien artean.

\*Senior lasterketan parte hartzen duten helduek, kategoria absolutuko sariak irabazteko aukera izango dute.

## **10. ARTIKULUA - ARROPAK JASOTZEKO SERBITZUA**

Santiagoko auzokideen egoitza parean arropa jaso eta gordetzeko zerbitzu bat egongo da, irteera puntutik oso hurbil.

## **11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA**

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.